

EBAZPENA, 2019ko uztailaren 5koa, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiarena, Uholde-prebentzioko arduradun lanpostua betetzeko prozesuaren Kalifikazio-epaimahaiko kideak izendatzen dituena.

Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren 2019ko maiatzaren 30eko Ebazpenaren bidez, Uraren Euskal Agentzian zenbait lanpostu behin betiko betetzeko eta lan-poltsak eratzeko hautaketa-prozesuari buruzko IRAGARKIA argitaratu zen 2019ko ekainaren 17ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA 113. zk.). Argitara emandako lanpostu horien artean dago Plangintza eta Lanen Zuzendaritzako Uholde-prebentzioko arduradun lanpostua.

Uraren Euskal Agentziako Uholde-prebentzioko arduradun lanpostua betetzeko hautaketa-prozesua arautzen duten oinarrien seigarren oinarrian zehaztutakoari jarraituz, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiak izendatutako epaimahai batek ebaluatuko du prozesua.

Horiek guztiak horrela,


ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Uraren Euskal Agentziaren Plangintza eta Lanen Zuzendaritzako Uholde-prebentzioko arduraduna hautatzeko prozesuko Kalifikazio-epaimahaiko kideen izendapena egitea.

| | Titularra | Ordezkoa |
|-------------|--|---|
| Presidentea | Jose M ^a Sanz de Galdeano Equiza (Uraren Euskal Agentzia) | Josu Perea Arandia (Uraren Euskal Agentzia) |
| Mahaikidea | Iñaki Arrate Jorrín (Uraren Euskal Agentzia) | Jose Ignacio Inoriza Aizpurua (DAEM Eusko Jaurlaritza) |
| Idazkaria | María López de Heredia (Uraren Euskal Agentzia) | M ^a Teresa Mena Aguilar (Uraren Euskal Agentzia) |

Bigarrena.- Ebazpen hau Uraren Euskal Agentziaren web-orrian (www.uragentzia.euskadi.eus) eta Campo y Ochandiano kanpoko aholkularitza-enpresaren web-orrian (www.campo-ochandiano.com) argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 5a.



Ernesto Martínez de Cabredo Arrieta

Zuzendari nagusia

Uraren Euskal Agentzia